

# Lan- elkarrizketa

## 1. Sarrera

Lan-eskaintzak ikuskatzen ditugunetik “lanpostua zurea da ” entzuten dugun arte, prozesua uste baino luzeagoa gertatzen zaigu, korapilatsua da, eta askotan itxaropena galtzen dugu. Inork ezin digu prozesu honen bermea eman, hala ere, arau orokor batzuk daude hauek betez gero aukera gehiago ematen digutenak prozesuan aurrera egiteko. Gure helburua lortzeko bide honetan, aurrera pausu bat oso garrantzitsua izan daiteke. Jarraian ditugu hautespen-prozesurako **eman beharreko urratsak**:

- ▶ **Ezer baino lehen lasaitu:** kontuan hartu behar dugu ibilbide korapilatsu bat hasiko dugula eta lan-merkatu lehiakor eta betean aritzeko nahiko indar eduki beharko dugula. Egunero gure e-maila irakurri eta “zure curriculuma ez dator bat bilatzen ari garen perfilarekin” horrelako esaldiak irakurtzeko prest egon behar dugu.
- ▶ **Seriotasuna eta profesionaltasuna:** lana bilatzea oso jardun gogorra da eta lanaldi bateko hainbat ordu eskatzen dituena. Ezin dugu aukera txikiena ere galtzen utzi. Garrantzitsuena lan-munduaren azterketa egokia egitea da: igandeko gehigarria, egunkari espezializatuak, Interneteko lan-poltsak, aldi baterako laneko enpresak, langileak hautatzeko enpresak... denak balio du.
- ▶ **Antolaketa:** datu-base bat edo agenda bat sortu beharko dugu bidalitako lan-eskaintzen jarraipena egiteko (zein komunikabidetan argitaratu zen, nork gomendatu zigun, zein curriculum bidaliko dugun- berezirik baldin badugu- zer eta noiz erantzun diguten).
- ▶ **Nork bere sustapena egitearen garrantzia:** ezagutzen duzun pertsona orok lan-merkatuan zaudela jakin behar du, lanpostu bat bila zabilzala ( diskrezioz lan-hobekuntza baldin bada). **Gogoratu %80 baino gehiagok bilatzen duela lana lagunei, ezagunei edo familiarrei esker.** Ez da apaltasun lezio bat, baizik eta praktika oso zentzuduna non mundu guzian “**networking**” izenez ezagutzen den.

## 2. Lan elkarrizketa motak

► **Egituratuak:** kasu honetan elkarrizketarako galderak aurretik definituak daude eta hautagaiari banan-banan galdetzen diote. Elkarrizketatzailearen trebetasun mailaren arabera galderak inprobisatuagoak izango dira.



► **Inprobisatua edo lagunartekoa:** hautagaiak eta elkarrizketatzaileak lagunarteko elkarrizketa giroa sortu dezakete. Elkarrizketa giro honek badirudi ez duela zer ikusirik lanpostuarekin, baina enpresaren ikuspuntutik oso interesgarria izan daiteke. Aholku bat: ez lasaitu. Elkarrizketa burutzen duen pertsona ez da zure laguna eta ez ditu zure alor pertsonaleko kontuak ezagutu nahi. Ebaluatzen ari zaizu, modu oso atseginean, baina ebaluatzen.

► **Sakoneko elkarrizketa teknikoak:** hautagaiaren ezagutza nolakoa den ikusteko erabiltzen da. Elkarrizketan zehar hautagaiaren espezializazio maila aztertuko da.

► **Bideokonferentzia:** hautaketa enpresek eta enpleguari buruzko web orriek teknika iraultzaile bat erabiltzen dute: hautagaiak ordenagailu bidez elkarrizketatzea software bidezko bideo-kamara berezi batzuekin. Bide honi esker, enpresek munduko edozein txokotako langileak hartu ditzakete.

► **Elkarrizketa anizkoitza edo seriekoa:** hautagaiak hainbat elkarrizketa egiten dituzte elkarrizketatzaile bat baino gehiagorekin. Elkarrizketatzaile bakoitzarekin mini-elkarrizketa bat egiten dute bakoitzak hautagaiaren alderdi bat baloratuz.

► **Talde-elkarrizketa:** hautagaien hasierako harridura ondoren konfiantza giroa sortzen da eta pixka bat lasaitzen dira. Poliki-poliki hautagai bakoitza bere paperean sartzen da, bizitza errealean duena. Liderra segituan ikusten da, lotsatia ez da nabarmentzen, batzuk taldeko esperimendu honekin gozatu egiten dute, beste batzuk bakarka erosoago sentitzen dira... taldekako teknika honi esker hautagaien gaitasunak azalerraten dira eta orokorrean aditu bat baino gehiagok ebaluatzen dute.

► **Elkarrizketa telefonikoak:** ez dira oso profesionalak eta erosoak, ahal izanez gero ukatu. Hala ere, hainbat sektoretan (esaterako ostalaritzan) ematen zaion erabilera dela eta izaera berezi bat emango diogu eta beste puntu batean azalduko dugu.

## 3. Elkarrizketa telefonikoa.

Lan-eskaintza argitaratzen duten enpresa gehienek lanpostua betetzeko hautagai askoren deiak jasotzen dituzte. Arrazoi hau dela eta, hautatzaileek **telefono bidezko elkarrizketa erabiltzen dute lehenengo hautaketa egiteko.**

Telefonoaren bidez, enpresek curriculumeko **datuak egiaztatu** ahal dituzte, lanpostuaren inguruko zertzelada batzuk eman eta **hautagaia nola azaltzen den entzun** dezakete. Aurrez-aurreko elkarrizketan hainbat alderdi kontuan hartu behar ditugun bezala emaitza onak lortzeko, telefonozko elkarrizketan ere hainbat alderdi zaindu behar dira.

#### ▪ **Nola prestatu**

Garrantzitsuena modu honetako elkarrizketetarako prestatuak egotea da, ondorioz elkarrizketatzaileak deitzen digunean modu hotz eta urrutikoan erantzutea ekidingo dugu.

Horrelako kasu baten aurrean gomendagarria da **deitzen digunari bere izena galdetzea, telefono zenbakia eta deiaren zergatia**. Datu hauek galdetuz gero zein lan-eskaintzaren inguruan deitzen digun jakingo dugu, curriculumak bidali dugun edo lan-iragarki baten inguruan deitzen digun. Zein lan-eskaintzaren inguruan edo zein lanpostutarako deitzen diguten ez baldin badakigu, deitzen duen pertsonak ez du gure erreferentzia ona hartuko. Inoiz ez dugu esan behar curriculum asko bidali ditugulako ez dakigula nondik deitzen diguten.

Deia jasotzen dugunean gure **aurkezpen-gutuna eta curriculumak eskura** edukitzea gomendagarria da, izan ere, gure lan-esperientzia eta ikasketen inguruko galderak egin legizkigukete. Kasu honetan zalantzarik ez dugu eduki behar, bestela sinisgarrirasuna galduko dugu. **Burututako lanen inguruko edo egindako proiektuen inguruko informazioa** gainean edukitzea ere gomendagarria da.

#### ▪ **Ez ahaztu ezer**

Orokorrean, elkarrizketatzaileak egin beharreko galderak egiten dituen denbora tarte bat utziko digu gure zalantzak edo sortutako galderak egiteko. Momentu hau aprobetxatu behar dugu **nabarmendu nahi duguna nabarmentzeko** edo **hautagai garen lanposturako garrantzitsua den zerbait aipatzeko**.

Beste alderdi garrantzitsu bat eta orokorrean garrantzirik ematen ez zaiona gure **janzkera eta kanpoko itxura** da. Nahiz eta harritu, zainketa fisikoak elkarrizketarako mentalki prestatuak egotea lagunduko digu. Adibidez, ez da berdina ohean etzanda egotea edo sofan pijaman egotean telefonoa hartzerako garaian edo prest egotea deia erantzuteko. Kasu honetan ere **jarrera zaindu** egin behar dugu, ondorio psikologikoengatik batez ere. Zutik baldin bagaude edo zuzen eseriak gure ahotsaren bidez konfiantza hartuko dugu gure buruarengan. Ez dugu ahaztu behar solaskidearentzat **ahotsa** bakarria izango dela gure perfilaren irudi bat egiteko aukera emango diona. Ikasketak eta lan-esperientziarekin batera ahotsaren bitartez eta elkarrizketatzailearekin hitz egiteko moduaren arabera aurrez-aurreko elkarrizketa egiteko aukera lortuko dugu.

Xehetasun guzti hauek kontuan hartu behar ditugu aurrez-aurreko elkarrizketa lortzeko. Egokiena gela batean bakarrik egotea da, isiltasunean, esaten digutena argi eta garbi entzun dezagun. Telefono-kabinak edo mugikorrek ez dira gomendagarriak deia galtzeko edo mozteko aukerak daudelako, beraz, egokiena telefono finkoak dira. batetik egitea da.

- **Hizkera egokia**

Elkarrizketan zehar ahotsaren tonu aldaketa bortitzak eta bat-batekoak saihestuko ditugu, telefono bidez ez baitu inpresio ona ematen. Bestalde, zentzurik gabeko esaldiak edo zalantzazkoak ekidingo ditugu: “pentsatzen dut”, “uste dut”, “iruditzen zait”, “izan liteke”, “agian”..., eta erreguak “arren eskatzen dizut”, “sinistu iezadazu”...

Hauen ordez esaldi zehatz eta zuzenak erabili: “proposatzen dizut”, “adierazten dizut”; baieztapenak, “egia da...”, “noski” eta eskerrak eman modu apalean. Hiztegia zaindu behar dugu.

#### 4. Elkarrizketaren prestaketa.

- **Elkarrizketatu behar zaituen enpresa sakonki aztertu.**

Hautagaiak lanpostuari buruzko edo enpresaren inguruko ezer ere ez jakitea baino gauza okerragorik ez dago.

Lehenik eta behin, ahal duzun heinean, aspektu hauen inguruan ikertu:

- ▶ Enpresaren ibilbidea eta bazkide edo sortzaileak
- ▶ Por duktu eta marken ildoak
- ▶ Langileak
- ▶ Iraganean izandako arrakasta
- ▶ Akatsak, izan baditu
- ▶ Negozioaren bolumena
- ▶ Lehiakide diren beste enpresekin duen maila
- ▶ Eduki litzakeen gabeziak
- ▶ Publizitate kanpaina

Enpresan bertan jaso dezakezu informazioa: **Giza Baliabideen sailean** txostena eskatu edo **web orrian** begiratu. Helbidea ez baldin badakizu bilatzaile on bat bilatu: google, hotmail edo yahoo. Merkataritza Ganberak edo gremioko elkarteek ere informazioa eman liezazukete.

- **Zure buruaren inguruan informa zaitetz**

**Hautaketa profesionalak ebaluatu:** zergatik hartu duzun bide hori eta ez beste bat, lan-munduan zein helburu dituzun, zein lanpostutan ari nahi duzun eta zenbat irabaztea gustatuko litzaizukeen, zerrek eman zaituen hor egotera, etorkizunean non ikusten duzun zure burua... Galdera hauek elkarrizketa guztietan mahai gaineratzen dira. Zure erantzunak argi badituzu ez duzu arazorik izango ziurtasunez eta konfiantzaz erantzuteko.

**Elkarrizketa egin aurretik** egin aurretik egin beharreko galderak:

1. Zein dira lanposturi loturiko nire gaitasunak, **ABILEZIAK ETA JAKINTZA** kontuan izanik?
2. LANPOSTUA BETE dezakedan ikusteko, nolakoak dira nire ezaugarriak?
3. Zein dira nire indar-guneak?
4. Zer hobetu dezaket?
5. Zerk bereizten nau beste hautagaietatik?
6. Zein dira nire helburuak epe ertain/luzerako?
7. Nola izan ninteko solaskide hobea?
8. Zergatik interesatzen zait enpresa hau besteak baino gehiago?
9. Abilezia eta gaitasun kontutan zertan egin dezaket ekarpena?
10. Zertan oinarritzen naiz nire helburu finantzarioak zehazteko garaian?

## 5. Elkarrizketaren faseak.

Elkarrizketak dituen faseak aztertuko ditugu hautaketa egiten duen pertsonaren ikuspuntutik.

**1.fasea:** hautagaia eta elkarrizketatzailearen arteko lehenengo kontaktua da. Fase hau oso garrantzitsua da, elkarrizketatzaileak hautagaiaren “**lehenengo inpresioa**” jasotzen duelako, hala nola **itxura eta jarrera**. Bere burua nola aurkezten duen kontuan hartu behar dugu, agurtzen duen edo ez, nola egiten duen, eskua luzatzen duen, nola esertzen den. Bere hasierako portaerarekin hipotesiak egiten hasi gaitzke, ea nola erlazionatzen den besteekin eta guri gehien interesatzen zaiguna, lan eremuan nolako jarrera izan dezakeen.

**2. fasea:** hautagaiaren **alderdi formalak** aztertzea (lan-esperientzia, heziketa-maila...). Fase hau oso garrantzitsua da **lanpostuari loturiko baldintzak betetzen** dituen ikusteko, dela gaitasun mailan edo esperientzia mailan. Aurretik lan-esperientzia izan duen jakitea garrantzitsua da, nola lotu zen beste enpresetara eta/edo nola aldendu zen, eta lehenago lan egin duen enpresa bateko telefono zenbakia eskatzea gomendagarria da, ea hautagaiak eman dituen arrazoiak eta enpresarenak bat egiten duten ikusteko. Informazio zehatzagoa bilatzekotan, erreferentziak eskatu behar dira, ahal izanez gero, azkeneko lanpostukoa. Litekeena da hautagaiak lanpostua aspaldi utzi izana edo lan egindako enpresan langileak maiz aldatzea. Halaber, gomendagarria da informazioa eskatzerako garaian enpresa bat baino gehiagori eskatzea, horrela informazioa egiaztatu dezakegu eta hautagaiaren jardura nolakoa den ikusi.

**3. fasea:** fase honetan **elkarrizketa bukatzen** da. Elkarrizketatzaileak lanpostuaren gaineko informazioa ematen du (enpresaren izena isilpean gordez), soldata, jarduteko eremua,

ordutegia... hala ere, elkarrizketatzaileak argi utzi behar du hautagaiak onartua edo ez onartua izateko aukera duela eta hautatua izan baldin bada hurrengo egunetan adieraziko diotela. Horrela ez bada, beste lanpostu baterako hautagai izateko aukera duela adieraziko zaio. Hautagaiak lanpostua onartzen badu eta bere perfilak baldintza guztiakin betetzen badu bezeroari aurkezteko hirukotea osatzen da.

## 6. Elkarrizketa egin aurreko gomendioak.

► **Itxura.** Itxura fisikoarekin eta jantzitako arroparekin eroso sentitu behar duzu. Jantzi beharreko arropa egun bat lehenago erabaki, denbora irabazten lagunduko dizu eta ezustekoak saihesten. **Gogoratu:** janzkera formal edo semi-formala, beti enpresaren filosofiari egokitua. Ez erabili lurrin edo kolonia usaintsurik, kolonia-ur freskoa hautatu.

Ez jarri bitxi deigarririk edo imitaziozkorik, atentzia ez emateko. Bestalde, saihestu: zapata zikinak janzteak, takoi handiak, gaizki moztutako bizarra, arropa zimurra... baldintza psikologiko egokienak bilatu: elkarrizketa aurreko gauean ondo lo egin, erlaxatu

► **Hitzordua idatziz adierazten badizute, egokiena telefonoz edo e-mail bitartez erantzutea da joango zarela baieztatzeko.** Edozein arrazoi dela eta berandu iritsi behar badugu enpresari adierazi behar diogu argudio solido eta arrazoizkoak emanez.

► Egin legizkiguketen galderak aurreikusi bai pertsonalak edo profesionalak. **Eman beharreko erantzunak prestatu.** Orokorrean, hautaketan adituak diren pertsonak galdera oso zehatzak planteatuko dituzte, beraz, erantzunak zuzenak eta ondo arrazoituak izan behar dute. Itxura ona eman nahi baldin badugu monosilaboak erabat baztertu behar ditugu.

► **Azalpen txiki bat prestatu,** modu egokienean zure burua aurkezteko, baina curriculumean jarritako errepikatu gabe. Izenburu garrantzitsuenak eta lanpostuari loturiko lan-esperientzia aipagarriena azaldu. Zure helburuak banan-banan aipatuz bukatu.



**GARRANTZITSUA!** Lan elkarrizketa bat planifikatzeak ez du esan nahi dena buruz ikasi behar dugunik!

► Elkarrizketatzaileari egin nahi dizkiogun **galderen zerrenda** osatu.

► **Elkarrizketara eraman beharreko materiala prestatu:** curriculum, aurreko enpresen gutunak edo gomendioak, burututako lanpostuen ziurtagiriak, tituluaren kopiak...

- ▶ **Puntualtasuna.** Elkarrizketa egin behar dugun lekura 5-10 minutu lehenago iristen saiatu. Eguneko hitzordurik garrantzitsuenaren itxura eman behar du. Horrela, lasaitzeko aukera izango duzu eta ez duzu arduratu itxura emango.
- ▶ Zein **garraino-bide** aukeratu behar duzun pentsatu eta hitzordua duzun lekuraino joateko behar duzun denbora. **Ez iritsi berandu elkarrizketara.** Berandu iritsiko zarela aurreikusten baduzu edo ezin izango duzula joan, ahala bezain laster enpresari adierazi behar diozu.
- ▶ **Elkarrizketara bakarrik joatea garrantzitsua da** familiako edo lagunaren babesik gabe. Ez duzu behar, bakarrik egin dezakezu, gaitasunak badituzu.

## 7. Elkarrizketan zehar kontuan hartu beharreko gauzak.

- ▶ **Momentua iritsi bitartea ez erre eta ez jan txiklerik.** Erretzeak, gainera, debekatua dagoela, urduritasun, menpekotasuna eta zure emozioen kontrol falta adierazten du.
- ▶ Hitzorduaren lekura sartu zarenean, **elkarrizketatzaileak eskua luzatu eta esertzeko gonbidatu arte itxaron.** Norberaren gauzak alde batera utzi espazio fisikoa eta ikuste-eremua ez oztopatzeke.
- ▶ **Hitzak.** Lanerako elkarrizketa bat egin behar dugunean badaude hitz batzuk erabili daitezkeenak eta besteak hobe ez erabiltzea.

Elkarrizketan zehar saiatu terminologia egoki bat erabiltzen non elkarrizketa antolatzen lagunduko dizun eta interesa piztuko duen. Adibidez:

- Lehenik eta behin....
- Zintzoki adieraziko naiz...
- Utzi pentsatzen.... ( modu honetara denbora irabazten dugu)
- Gogoratzen dut....
- Esaten ari nintzen bezala.... (etenaldi baten ondoren erabiltzeko)
- Hitz gutxitan, laburbilduz.... (esaten ari ginena bukatzeko)
- Hautagai egokia izan naitekeela sumatzen dut, zeren...

Gogoan izan behar dugu elkarrizketan ezin dugula guk bakarrik hitz egin, denboraren %75 guretzat da, baina %25 elkarrizketatzailearentzat da; ez dugu azkar hitz egin behar, elkarrizketatzaileari elkarrizketa antolatzeko denborarik utzi gabe.

- ▶ Lan-elkarrizketa batean, **neurritz jokatzeko beharrezkoa** da. Elkarrizketa ondo egituratzea eta entzuten jakitea dakar jarrera honek. Gaitasun hau geroz eta gehiago baloratzen da lan-elkarrizketak egiterako garaian. Edozein distrakzio edukitzen dugula negatiboa izango da, despistatuak garela pentsa dezake elkarrizketatzaileak, beraz, kontuan hartzeko gauza bat da.

- ▶ **Solaskideari beti begietara begiratu.** Begietara begiratzuz gero kasu egiten ari zarela erakutsiko diozu. Ez begiratu behera, begirada mantentzearekin, oldarkorra izan gabe, nortasuna erakusten baituzu..
- ▶ **Aktiboki entzun.** Inplizituki esan nahi dizuna ulertzen saiatu.
- ▶ **Gorputz-hizkuntzan arreta jarri.** Aurpegiko adierazpena, keinuak, gorputzaren jarrera eta mugimenduak askotan ditugun jarrera eta sentimenduen adierazle dira.
- ▶ **Monosilaboak erabiliz baieztatu,** elkarrizketa jarraitzen ari zarela adierazteko modu bat da. Baiezko edo ezezko keinuekin lagundu.
- ▶ Egoki ikusten duzunean eta momentu aproposa bada, **galdera edo azalpenak eginez parte-hartu.** Egoera eroso bat sortuko duzu eta elkarrizketatzaileak bakarrizketa bat egiten ari ez dela ikusiko du.
- ▶ **Argi eta ozen hitz egin,** ulertzeko moduan.
- ▶ **Isiluneak utzi** solaskideari hitz egiteko aukera emanez.
- ▶ **Ahots tonuak aldatu** eta zure nortasuna eta historialari buruzko alor nabarmenenak azpimarratu.
- ▶ Erantzunak ematerako garaian **ziurtasuna erakutsi.**

## 8. Elkarrizketean egin behar EZ dena.

Garrantzitsua da lan elkarrizketa batean jarraian agertuko diren **akatsak** ez egitea:




- ▶ **Ez galdu arreta.** Urduri gaudenean ohikoa da elkarrizketa egiten ari diguten lekuko edozein adonu edo soinuk gure atenzioa desbideratzea. Hau gerta ez dagizun elkarrizketatzailearen hitzetan arreta jarri. Ez jarri arreta bere hitz egiteko moduan, ahotsean edo horrelako kontuetan. Arreta jartzeko modu bakarra bere mezuan zentratzea da, zer esaten ari den.
- ▶ **Ez moztu elkarrizketa hitz egiten ari denari.** Zerbait baieztatu, galdetu edo zehaztu behar baldin baduzu itxaron esaldia bukatu arte. Memoria erabili, edo beharrezkoa behar baldin baduzu oharrak idatzi ondoren galderak egiteko.



- ▶ **Entzuten ari zaren heinean ez atera ondoriorik.** Gomendagarria da mezua ondo jasotzea, denbora edukiko dugu gure ondorioak ateratzeko.
- ▶ **Ez egin itxurarik.** Elkarrizketatzaileari atsegin izan. Zu zeu izan.
- ▶ **Piercig eta ikur nabarmenak ez eraman.**
- ▶ **Ez erakutsi jarrera negatiborik.** Irribarre batekin sartu. Enpresari guztiek jende zorionsua kontratatu nahi dute. Horregatik, itxuraz gain, jarrera positiboa erakutsi behar dugu.
- ▶ **Ez aritu txutxu-mutxuka** harrerako langilearekin edo itxarongelan dagoen pertsonarekin. Serio eta kontzentratuta egotea garrantzitsua da.
- ▶ **Ez jarri urduri. Positiboa izan:** deitu bazaituzte zuregan zerbait ikusi dutelako izan da.
- ▶ **Ez esan gezurrik.** Elkarrizketatzaileak oso ohituak daude gezurrak entzutera, beraz, azkar igertzen dute pertsona bat gezurretan ari den edo ez.
- ▶ Elkarrizketa bukatu baino lehen **ez joan burutu zaizkizun galderak egin gabe.**
- ▶ **Elkarrizketatzailearen lana ez gutxietsi.** Hau egiten badugu elkarrizketaren emaitza jakina da.
- ▶ **Ez hitz egin asko.**
- ▶ Ez puztu esaldiak eta ez esan erdizkako egirik.

## 9. Elkarrizketara eraman behar duguna.

- ▶ Boligrafola edo luma (diseinu klasikoa). 
- ▶ Harremanetarako telefonoa eta elkarrizketa egin behar diguten tokiko helbidea.
- ▶ Gure curriculum eta burututako ikasketa eta lanpostuen ziurtagiriak.
- ▶ Orri zuriak oharrak hartu behar izanez gero.
- ▶ Muki-zapiak edo paperezko zapiak.
- ▶ Mendazko gozokiak (txiklerik ez) hats fresko izateko.
- ▶ Dirua, denboraz berandu bagabiltza taxi bat hartu edo telefonoz deitzeko.

## 10. Elkarrizketako galderarik zailenak.

 Jarraian elkarrizketa fasean egon daitezkeen **galderarik korapilatsuenak** ikusiko ditugu:

- ▶ Zergatik kontratatu behar zaitugu?
- ▶ Lorpen profesional handiena nabarmendu beharko bazenu, zein hautatuko zenuke?
- ▶ Zein izan da desengainu profesional handiena? Nola gainditu zenuen?
- ▶ Zalantzarik baduzu? Galderarik egin nahi diguzu?

**Galderarik onenak guk planteatutako dira. Lanpostua eta enpresaren gaineko interesa azaldu modu jakintsu batez eta ez indartuta. Zure zalantzak azalduz elkarrizketatzaileak gehiago ezagutuko zaitu erantzunak emanez baino.** Aproposa izan behar duzu, momentu egokia aukeratu behar duzu galderak egiteko, baina elkarrizketa moztu gabe.

- ▶ Zenbat irabazi nahi duzu? Zein izango zen bidezko soldata lanpostu honentzako?

Ezbairik gabe, elkarrizketako askotako momenturik gorena hauxe da. Erantzunak balizko eskaintza bat izan behar du. Ez esan arinegi eta ez hitz egin zenbaki zehatzez, beti negoziaketarako bidea utzi: *“oso interesatua nago, beraz, akordio batetara iritsiko garela ziur nago”, “zuen enpresan lan egitea asko gustatuko litzaidake eta badakit dirua ez dela oztopo bat izango”.*

**Ez bukatu elkarrizketa lanpostuarekiko interesa azaldu gabe, hala badin bada behintzat.** Bukaera egoki bat izango litzake elkarrizketa galdera honekin bukatzen baduzu: *“zein urrats eman behar ditut hemendik aurrera?”*

## 11. Bukatzerakoan, zeure burua ebaluatu.

Akatsekin asmatzeekin baino gehiago ikasten da. Elkarrizketa bukatzen duzunean eseri eta elkarrizketan esan duzuna ebaluatu. Agenda batean apuntatu zure irudipen guztiak, gogor izan zeure ebaluaketarekin, horrela hobetuko baituzu. **Kontuan izan alderdi hauek:**

- ▶ Enpresaren izen osoa. Bere jardueren deskribapen laburra, indar-guneak eta ahultasunak eta prentsan ateratako berriak.

- ▶ Elkarrizketa data: eguna, hilabetea, urtea eta ordua.
- ▶ Elkarrizketa burutu den tokiaren helbidea.
- ▶ Harremanetarako telefonoa.
- ▶ Elkarrizketatzailearen izen-abizenak eta enpresan duen ardura.
- ▶ Elkarrizketan beste pertsona bat egon bazen bere izen-abizenak eta enpresan duen ardura.
- ▶ Harremana: noiz eta nola egin nuen harremana enpresarekin? (inguruko harremanak, komunikabideak, web, berezko hautagaitza...)
- ▶ Eskaintako lanpostua eta bete beharreko baldintzak.
- ▶ Atera bezain laster eginiko ebaluaketa.
- ▶ Elkarrizketan izandako indar-guneak.
- ▶ Hobetu beharreko alderdiak.
- ▶ Zertan geratu gara?

## 12. Zergatik ez didate hautatu?

Ez gogogabetu. Mundu guztiak pasa du inoiz horrelako momentu bat bere ibilbide profesionalean. **Garrantzitsuena irakurketa positibo bat egitea da eta gure akatsetatik ikastea berriz errepika ez daitezen.**

Oso gutxitan emango dizkizute azalpenak. Erantzuna, ziurrenik jarraian ikusiko ditugun alderdietan egongo da, nahiz eta onartzea kostatu:

- ▶ Prestaketa falta.
- ▶ Beste norbaitek zure curriculuma, ikasketak edo hizkuntzak gainditu ditu.
- ▶ Zure nortasuna ez dator bat eskatzen ari ziren perfilarekin. Kasu txarrean norberaren konfiantza falta, baikortasun falta, gehiegizko lotsa edo nagusikeria izango zen. Hautagaitzarako arduradunei atzera ematen dien beste alderdiak hauek dira: oldarkortasuna, harrokeria, desoreka, inizatiba falta.
- ▶ Soldatan, ordutegian edo enpresaren hobari sozialetan interes gehiegi erakutsi zenuela iritzi dute.
- ▶ Malgutasun falta.

- ▶ Eskaintzen duten proiektuan interes gutxi. Agian, lanpostua eskaintzen duen enpresaren inguruko informazioa ez zenuela ezagutzen adierazi duzu. Sektorearen gaineko ezjakintasuna.
- ▶ Gehiegi eskatu zenuen. Bidezkoa zen soldata finkatu zenuenean, gehiegi esan zenuen, negoziaketarako aukera itxiz.
- ▶ Lanposturi loturiko ikasketak ez datoz bat. Kalifikazio baxuak, bukatu gabeko ikasketak.
- ▶ Iniziatiba eta gar falta lan berriak burutzerako garaian.
- ▶ Jantzera desegokia, itxura pertsonalaren utzikeria. Higiene falta.
- ▶ Helburu pertsonal edo profesionalen gabezia. Ambizio edo lidergo falta.
- ▶ Etxebizitza tokiz aldatzeko edo bidaiatzeko ukazioa.
- ▶ Lanbidez kanpoko ekintza falta.
- ▶ Zure perfilak ez luke bat egingo departamentuan lan egiten duten beste langileen perfilarekin: adin edo kultura tarte handia edo dena delako beste zerbait.
- ▶ Estilo kaskarra: aurretik izandako lanpostua kritikatu duzu, langileak, nagusia edo enpresa-politika.

### 13. Elkarrizketan egiten diren ohiko galderak.



#### ELKARRIZKETAN ZEHAR EGIN DITZAKEZUN GALDERAK

##### ▶ ENPRESARI BURUZ:

- Jarduera burutzen den sektorearen egoera.
- Garapenerako aurreikuspenak.
- Antolaketarako aurreikuspenak.

##### ▶ BETE BEHARREKO LANPOSTUARI BURUZ:

- Lanpostua egotearen arrazoiak, berria al da?, beste bat ordezkatzeko al du?
- Lehenengo kasuan, zergatik sortzen duzue?
- Bigarren kasuan, zergatik geratu zen hutsik?

- Berehalako menpekotasun hierarkikoa eta goi-mailakoa.
- Iniziatibarako aukera.
- Lanpostuaren hautaketa prozesua.
- Ordainsarien argipenak (ordaintzeko modua, datak, pagak, gehigarriak, beherapenak, etab.).

#### ► LAN-BALDINTZAK:

- Lekua
- Orduetgia
- Egutegia
- Oporrak
- Lan-giroa
- Jangela
- Aldagelak
- Garraioa
- Baimenak

#### ► LANGILEEN INGURUKO POLITIKA:

- Sustapenerako aukera.
- Hasierako eta gerorako formazioa jasotzeko aukera.
- Soldata-politika.
- Sustapen-neurriak ote dauden.
- Norbanakoaren emaitzak aztertzeko sistema ote dagoen.
- Helburuak baloratzeko sistema ote dagoen.

#### ► IRADOKIZUNAK:

- Sektorearen eta enpresaren inguruko ezagutzak dituzula azaltzeko egin.
- Zure lorpenak erakusteko helburuarekin galderak egin.
- Erabakiak hartzeko gaitasun duzula argi uzteko horren inguruko galderak egin.
- Lanpostuarekiko interesa azaltzen duzula ikusteko, horren inguruko galderak egin.



## ELKARRIZKETA ZEHAR GALDETU DIEZAZUKETEN GALDERAK

### ► ENPRESA:

- Nola ezagutu gintuzun?
- Zer dakizu gure enpresaren inguruan?
- Nola definituko zenuke?
- Zergatik egin nahi duzu lan gure enpresan?
- Zer entzun edo irakurri duzu enpresaren inguruan?
- Zein ekarpen egin diezaiokezu enpresari?
- Zenbat denbora geratuko zinateke enpresan?
- Beste lan-eskaintza batzuk aztertzen ari al zara?
- Ez duzu nahiago beste enpresa handiagoa/txikiagoa, garrantzia gehiago/gutxiago batean lan egin?
- Zer da gutxien gustatzen zaizun gure enpresatik edo proiektuetatik?

### ► FORMAZIOA:

- Zein ikasketa dituzu eta zergatik egin zenituen?
- Zergatik utzi zenituen ikasketak?
- Ikastea erabaki zenuenean, zein beste ikasketa begiratu zenituen?
- Ikasketak aukeratzeko garaian, nork eragin zizun gehien?
- Berrito hasi behar bazenu hautaketa bera egingo zenuke?
- Ikasketak berrito hasiko bazenu, zer egingo zenuke beste modu batetara?
- Nota onak izan al zenituen?
- Zein neurritara dira zure notak ahalegin pertsonalagatik eta zein adimenagatik?
- Nola ikasten zenuen? Zein metodo erabiltzen zenuen?
- Gaiak taldean lantzen zenituen edo nahiago zenuen bakarka egin?
- Zein hizkuntza ezagutzen dituzu? Ze maila duzu?
- Non ikasi zenuen ingelesez/frantsesez/euskaraz... hitz egiten?
- Zein ziren zure ikasgai gustukoena? Eta zeintzuk ematen zizkizuten buruhauste gehien?
- Ikasle zinen garaiko zein esperientzia izan da aberasgarriena?
- Ikasle garaian eduki zenuen ordezkariarik (mailako delegatua, Tunako kide...)?
- Lanik egiten zenuen ikasle garaian? Zertan?
- Azken hiru urteetan jaso al duzu eskolaren bat? Zerrena? Zergatik?
- Formakuntza osagarrian, epe motzeko ze ikastaro edo mintegi jaso dituzu? Zerk eraman zintuen horretara?
- Lanpostuari loturiko jaso duzun formakuntza azpimarratu.
- Eskatzen zaizun heinean zure formakuntza osatzeko prest al zaude?
- Formazioan ematen duzun garapenaren arabera zure ordainsaria egokitzeko prest al zaude?
- Zergatik daude hutsuneak zure curriculumean?

### ► IRAGAN PROFESIONALA:

- Kontatu zure lan-esperientzia.
- Nola lortu zenuen lan hori?
- Zenbat ordaintzen zizuten?
- Zein da azkeneko lanpostuan izan duzun ardura? Zein ziren funtzioak?
- Zereginen zerrenda baten aurrean, nola markatzen dituzu lehentasunak?
- Zergatik utzi zenuen azkeneko lanpostua?
- Orain arte egin duzuna kontuan hartuta, zer da gehien gustatu zaizun eta zergatik? Non sentitu zara probetxurik gabe?
- Lan-esperientzia hauek zer eman dizute?
- Ze oroitzapen dituzu geroztik?
- Zure interes profesionalak aldatu al dira azken urteetan? Zergatik?
- Azken lanpostura bueltatuko al zinateke? Zergatik?
- Aurreko lanpostuko egun arrunt bat deskribatu.
- Bizitza profesional edo akademikoan atzera egiteko aukera bazenu, zerbait kendu edo aldatuko zenuke? Bere egunean egin ez zenuen zerbait egingo zenuke?

### ► LANPOSTUA:

- Zergatik gustatuko litzaizuke lanpostu hau hartzea eta ez beste bat?
- Zerk eman zizun arreta lanpostuaren iragarkian?
- Ze ekarpen egin dezakezula uste duzu?
- Zertan hobetu dezakezula uste duzu gure enpresan lan eginez gero?
- Esperientzia profesionalik ez baduzu, zertan uste duzu egin dezakezula ekarpena?
- Lanpostua hau lortzeko gai ikusten zara?
- Nola harremantzen zara zure lankideekin?
- Zein izango zen zure lanpostu ideala?
- Ze iritzi duzu arreta asko jarri behar den lanpostuen inguruan?
- Eta sormen handia behar den lanpostuetan?
- Ze iritzi duzu monotoniaz?
- Ze lan erritmora zaude ohitua?
- Ze ezaugarri definitzen dute nagusi egoki bat?
- Zein izango zen lan-talde egokia?
- Ze iritzi duzu presiopean lan egiteari?
- Eta ongi pasatzen lan eginez?
- Taldean lan egiterako garaian, ze rol edo jarrera hartzen duzu?
- Lanpostu batean zer da garrantzitsuen?

### ► LANEAN IZAN BEHARREKO JARRERA:

- Nola gustatuko litzaizuke lan egitea, banaka, taldean, berdin zaizu?
- Zergatik duzu nahiago taldean lan egin?
- Zergatik duzu nahiago banaka lan egin?
- Taldekako lanean ze esperientzia duzu?
- Ondo integratu al zara lan-taldean?
- Aurretik harreman bat duzu jendearekin nahiago al duzu osatu taldea?
- Uste duzu, salbuespenak salbuespen, laguntasuna eta lana bereizi behar direla?
- Maila gorenekoen aginduak onartu, eztabaidatu edo zalantzan jartzeko joera al duzu?
- Zure lankideen eraginkortasun mailarekin fidatzen al zara?
- Nola onartzen dituzu diziplina arauak? Uste osoz, beharrezkoak edo inposaketa moduan?
- Ze iritzi duzu aurreko nagusiez?
- Aurretik lan egindako enpresatako zeinen erreferentzia eman zeniezaguke?

### ► PROIEKTUAK:

- Epe motz, ertain eta luzearako zure helburuak zein dira?
- Hemendik 5/10/15 urtetara non ikusten duzu zure burua?
- Zergatik uste duzu zeu zarela pertsonarik egokien lanposturako?
- Beste hautagaietatik zein lorpen edo indar-gunek bereizten zaitu?
- Apustu berri hau aurrera ateratzeko egokia ikusten al zara?
- Zein dira arrakasta profesionala izateko gakoak?
- Elkarte profesional bateko kide zara?
- Zure gremioko aldizkariren bateko harpide al zara?

### ► BALDINTZA PERTSONALAK:

- Berehala hasi zaitezke lanean?
- Zenbat denbora behar duzu gaur egungo enpresari agur esateko?
- Bizilekua aldatzeko disponibilitatea baduzu?
- Maiztasun batekin bidaiatu beharra axola zaizu?
- Zeure ibilgailurik baduzu?
- Etxebizitza baten jabe zara?
- Beste lan osagarririk baduzu, ordaindua edo ez?
- Beste ordezeko lan-eskaintzarik baduzu?
- Lanaz gain baduzu beste zeregin politikorik, kulturala, kirolakoa, artistikoa, sindikala, komunitatekoa, etab.?
- Zure zereginik ba al duzu ( familia-negozioa, jabetza-administratiboak, laborantzarako lurak, etab.)
- Zure denbora librean zer egiten duzu?
- Kirolirik egiten duzu? Zaletasunik baduzu?
- Orain arte ze zaletasun egiteko aukera ez duzu izan eta etorkizun batea egiteko asmoa duzu?



- Lagun asko dituzu?

## NORTASUNA:

- Zure bizitzan bizitu duzun egoera gatazkatsu baten inguruko pasadizo bat kontatu non irtenbide bat eman zenion.
- Zein dira zure dohainik nabarmenenak?
- Zein dira zure akatsak? Deskribatu hiru nagusienak.
- Bost adjektibo kalifikatzaile erabiliz definitu zure burua. Arrazoitu.
- Erabaki bat hartu behar izanez gero, oldartsua edo zuhurra zara?
- Hitz egin zeure buruaz.
- Hasitako bukatzen al duzu?
- Zure baloreen eskala deskribatu.
- Ahal izanez gero, zer aldatuko zenuke zure izaeratik?
- Zure akatsetatik zer ikasi duzu?
- Kritika ona duzula uste al duzu?
- Egun negargarri baten ondoren, zer egiten duzu?
- Jendaurrean hitz egitera ohitua zaude? Inoiz egin al duzu? Nola izan zen?
- Lidertzat edo jarraitzailetzat duzu zure burua, zergatik?
- Zure inguruko pertsonak, zentzuduntzat al zaituzte?
- Eta zuk, zentzuduntzat al duzu zure burua?
- Laneko gertakariak familiarekin partekatzen al dituzu?
- Egunerokotasunean eduki ditzakezun arazoak argitzen laguntzen al dizu familiak?
- Ospetsua izango bazina, zure zein alderdi azpimarratzea gustatuko litzaizuke?
- Animala batekin alderatu beharko bazenu, zeinekin egin zenuke? Zergatik?
- Kontatu txiste bat.
- Iraganean hartutako erabakirik garrantzitsuena zein da?
- Zein da dena uzteko gai izango zinatekeen ametsa?
- Ezagutzen duzun norbaitengan pentsatu (irakaslea, laguna, bikotea, gurasoak...), nolakoa zaren galdetuko banie, zer uste duzu erantzungo luketela?
- Elkarrizketatzailea zu izango bazina eta ni hautagaia, ze ezaugarri bete beharko nituzke?
- Ze irabazten du enpresak zuri kontratatuz gero? Ze elementu bereizgarri dituzu?
- Ze irudipen duzu elkarrizketa egin ondoren?
- Galderarik egin nahi didazu?

## ► PORTAERA

Jarraian aipatuko dizkizudan egoeren aurrean kontatu zein izan den zure portaera:

- Arazko etiko baten aurrean.
- Erabaki korapilatsu baten aurrean.
- Zure baloreak eta ideologia larri egon zirenean.
- Bizitzako aldaketa handi baten aurrean.
- Arrakasta profesional edo pertsonal baten aurrean.

- Zure ingurunean bizitutako bidegabekeria baten aurrean.
- Pertsona gatazkatsuekin lan-harremanak izan behar zenituenean.

### ► BIZITZA PRIBATUA:

- Bikoterik baduzu? Ze iritzi du lan honen inguruan?
- Zein da zure egoera zibila?
- Gurasoekin bizi zara?
- Zeinekin bizi zara?
- Zergatik erabaki zenuen gurasoen etxetik joatea?
- Ezkontzeko asmorik baduzu?
- Ezkontuta bazaude, ezkontideak lan egiten du?, lan berriak bateraezintasun bat ekar al dezake ezkontidearen lanarekin?
- Familiako kideren batekin bizi baldin bazara, eragin dezakeen zailtasunetan pentsatu al duzu?
- Seme-alabarik baduzu?
- Hitz egin gurasoekin bizi zinen bitartean seme-alaba bezala izandako paperaz.
- Zertan lan egiten dute zure gurasoak, anai-arrebak...?
- Norekin duzu harreman estuagoa aitarekin, amarekin edo biekin berdin? Zergatik?
- Zein dira zure lagunik onenak? Zer baloratzen duzu gehien beraiengan?
- Zer egiten duzu zure denbora librean?
- Zer egiten duzu asteburuan, oporretan?
- Zein dira zure zaletasun gogokoenak?
- Ikusi al duzu...(pelikula bat)? Zer iruditu zitzaizun? Laburtu .
- Zein da azkena irakurri duzun liburua? Zer iruditu zitzaizun?
- Esan miresten dituzun historiko hiru pertsonaien izenak; beraiekin lan egitea gustatuko litzaizukeen hiru izen...
- Zer ekarpen egiten dizu.....(kirola egiteak)?
- Ze baldintza eman beharko litzake zuk eta zure familiak arrakasta profesionala izan duzula esateko?
- Gaur egun zertan ari zara?
- Ze iritzi du zure familiak zure hautagaitzaz eta lanpostu berriaz?

### ► ORDAINSARIA:

- Aurreko lanpostuan zenbat irabazten zenuen?
- Zure beharrak betetzeko zein da minimoa?
- Zure erabakian alderdi garrantzitsuena ekonomikoa al da?
- Beste alderdiak baloratu dituzu: segurtasuna, garraioa, jangela, etxebizitza, ordutegia, oporrak, etab.?





## BIRFORMULAZIO POSITIBOA

Birformulazio positiboa honetan oinarritzen da:

- ▶ Negatiboa positiboan arrazoitzea.
- ▶ Ahultasunak indar-gune bilakatzea.
- ▶ Arazoa ikuspuntu mesedegarritik ikustea.

<p><b>“ Zure ADINA ez da egokia”</b></p>	<p><b>ESPERIENTZIA</b> garrantzitsua da <b>HELDUTASUNA</b> lanpostu honen gakoa da <b>ERANTZUNKIZUNA</b>. Lanpostua ezin da pertsona gazte baten gain utzi...</p>
<p><b>“ ez duzu esperientzia nahikorik lanposturako”</b></p>	<p><b>EGOKITZAPEN GAITASUN</b> handiagoa <b>MOTIBAZIO</b> gehiago,<b>ERRONKA</b> bat. Gauza berrietara egokitzeko gaitasun gehiago Hartutako bizioez libre Esperientziaz falta duzuna <b>POTENTZIALAZ</b> duzu Nire ikasketetan jasotako ezagutza praktikan jartzeko garaia.</p>
<p><b>“zer ari da zu bezelako norbait horrelako leku batean”</b></p>	<p>Pertsona ez da lanbidea bakarra, <b>ALDAKORTASUNA</b> Heldua aldakorra da Nire <b>EGOKITZAPEN GAITASUNA</b> Nire formazioa erabilgarria da lanpostu honetarako.</p>
<p><b>“ Ikasketetan porrota”</b></p>	<p>Garai hartako heldutasun falta <b>HELDUTASUN</b> nahikoa izan nuen hartutako erabakia aldatzeko. Horri esker gaur egun profesional ona naiz.</p>
<p><b>“ez duzu bat egiten eskatutako perfilarekin”</b></p>	<p>Egia da lortzeke ditudan helburuak ditudala, hori dela erronka eta pizgarri bat da. <b>MOTIBAZIO HANDIA. POTENTZIALA.</b></p>
<p><b>“Oso urduri ikusten zaitut”</b></p>	<p>Egia esan, <b>GARRANTZIZKOA DEN ZERBAIT</b> dela uste badut, ezin dut ezinegon hori ekidin. Nire sentimenduekin oso <b>GARDENA</b> naiz eta <b>BENETAN DESIO</b> dudan zerbaitekin lortzeko zorian nagoenean eta nire burua horretarako gai ikusten badut, ezin dut saihestu <b>URDURI EGOTEA.</b></p>
<p><b>“entzungorra zara”</b></p>	<p>Horri esker <b>HOBETO KONZENTRATZEN</b> naiz nire lanean. Nire lanean murgildurik banago oso zaila da inguruko zerbaitek arretea kentzea.</p>
<p><b>“Ezkonduta al zaude?”</b></p>	<p>Bikotekidearekin eta lanarekin <b>ARDURATSUA ETA KONPROMETITUA</b> izaten laguntzen dit.</p>

## ELKARRIZKETAREN IKUSPEGI ASERTIBOA

	<b>ESAN</b>		<b>EZ ESAN</b>
	Gauza berriak ikastea gogoko dut eta nire ahalegin guztiak jarri ditut formakuntza hobetzen.		Egia esan ez du ikasketarik ezta inongo titulu akademikorik ere.
	Lanpostu desberdinetatik pasatzea erabaki dut lanpostu finko bat hartu baino lehen.		6 hilabete baino gehiago ez dut iraun enpresa berean.
	Esperientzia asko duda pertsona naiz eta ni uste enpresan nahiko erabilgarria izango naizela.		50 urterekin zaila da inork ni kontratatzea.
	Oinarrizko formakuntza dut enpresa honetan praktikan jartzeko; bestalde, hobeto egokituko naiz enpresaren filosofiara ez baitut aurreko lanetako mugarik.		Titulua atera berri dut eta lan-esperientzia falta zait.
	Nire gaitasunen barnean dago		Gehiegi da niretzat
	Erantzuten jakingo dut		Ez dut jakingo zer esan
	Eusten badakit		Kontrola galtzen dut
	Gaitasunak dituen pertsona naiz		Ez naiz onena/egokiena
	Gaindituko dut		Beldurra ematen dit
	Zuzentzen badakit		Okerrak egiten ditut
	Ondo egingo dut		Akatsak egin ditzaket
	Pozik nago		Ez du meriturik
	Seguru nago		Iruditzen zait...
	Konbentzituta nago		Uste dut...



### POSITIBOKI BALORATZEN DA...

- ✓ Trebea izatea.

- ✓ Lan-kargarekin tolerantzia izatea.
- ✓ Asegina izatea.
- ✓ Tentsioari tolerantzia izatea.
- ✓ Antolatze eta planifikatzeko gaitasuna.
- ✓ Arazoak konpondu eta irtenbideak bilatzea.
- ✓ Iniziatiba izatea.
- ✓ Oldarkorra ez izatea.
- ✓ Norberarengan konfiantza izatea.
- ✓ Maltzuraren mentala izatea.



## NEGATIBOKI BALORATZEN DA...

- ↳ Pasiboa eta axolagabea izatea.
- ↳ Eskatutako maila baino prestakuntza gutxiago izatea.
- ↳ Egotez ez jakitea, harretarik ez jartzea, baldartasuna erakutsi.
- ↳ Problematikoa eta liskargilea izatea.
- ↳ Estutasuna eta urduritasuna azaltzea.
- ↳ Harrokeria erakustea edo konfiantza gehiegi.
- ↳ Elkarrizketatzaileari ez begiratzea, defentsiban egotea.
- ↳ Soldataren inguruan interes gehiago jartzea lanpostuan baino.
- ↳ Lanposturen ezaugarriak, funtzioak, zereginak, enpresa, etab. ez galdetzea.